

Irakur zaletasuna sortzeko helburuagaz batetik bestera

TXOMIN L. ARAMAIO

Badira hamazortzi urte Durangoko Berbaro Elkartea euskara indartzeko beharrean dabilela. Euskararen erabilera indartzeko espazioak sortu eta sortu. Horietako espazio batek estreinako bisita egingo du Lekeition asteen. Estreinako bider porturatu da. Haur Literatur Aretoak (HLA) txikota bota, moilan lotu, eta barikua arte amarratuta geratuko da.

Haur Literatura Aretoa haur eta gazte arloan Berbarok landutako espazio garrantzitsuenetako bat da. Urteetako beharra aprobetxatuta, orain arte Durangaldean egindakoa beste herri batzuetara zabaltzen ahalegintzen ari gara. Kasu honetan, Lekeitiora, azaldu dute antolatzaileek. Aretoak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakurlezaletasuna bultzatzea eta literatur lan gomendagarriak lantzea du oinarri. Adin bakoitzean, formatu ezberdinean. Adinera egokitutako formatuan. Umeak adin tarteka sailkatzen ditugu: Haur Hezkuntza (4-6 urte), Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 zikloak (6-10 urte) eta Lehen Hezkuntzako 3. zikloa (10-12 urte), azaldu dute.

Haur Hezkuntzakoek erakusketa girotua eta ipuin antzeztua lantzen dituzte; Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 zikloak erakusketa girotua eta antzerkia; eta 3. ziklokoek, erakusketa girotua, literatur lanen irakurketa eta idazleekin elkarrikketa. Atzo goizean, esate baterako, ikastolako Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 23 ume Eskolapeko Erakusketa Aretoan batu ziren. Benetako liburutegi baten antzera atondutako txokoan, adin tarte bakoitzari dagokion liburuak elkarregaz jarrita zituen ordurako HLAKo begiraleak. Azalpenak adi-adi entzun, eta frogatzen baten harira, liburuaren atalak zeintzuk diren ondo ulertu, eta hobeto erabiltzen ikasi zuten. Liburuak esku artean erabiltzen eta informazioa ateratzen erakustea da gure helburua. Jokoak ondo egiteko behar zuten informazioa liburutegiko apaletan jarritako liburuetatik atera behar zuten. Liburuak ondo erabiltzea beharrezkoa da jolasa ondo egiteko eta sasoz amaitzeko.

Txikienak ere, erakusketan

Lehenengo erakusketa saioa amaitutakoan, eskolako txikien txanda ailegatu zen. 3 urteko gelako 21 ume liburuarekin jolasteko aukera eduki zuten. Liburuak egoki erabili eta gordetzen ikasteaz gain, puzzleak egiten ibili ziren. Eguerdia aldera, eskolako 5. mailakoak Kirmen Uribe idazlegaz egon ziren. Garmendia eta Fannyren sekretua liburuaren gainean berba egin zuten idazle ondarrutarragaz.

Barikua arte, gelaz gela, bakoitzari dagokion ekintzak egiten joango dira eskolako zein ikastolako umeak. Gaur, besteak beste, Pako Aristigaz egoteko eta ipuin antzeztua ikusteko aukera ere edukiko dute. Egunotan ikasiko duten guztiaren osagarri, urtean argitaratuta lan berriak eta aurreko urteko lan gomendagarriak biltzen dituen gida bat banatu dute Berbarok. Aipatu gida, liburuak hautatzerako orduan irakasle, ikasle zein gurasoentzat tresna erabilgarria izango da. Hiru eta hamabi urte bitarteko umeak literaturaren mundura modu aktibo baten hurbildu nahi ditugu.

Azkenik, HLA amaitu ondoren, parte hartu duten ikastetxe guztietako irakasleek balorazio orria beteko dute memoria bat egiteko asmoagaz.